

Galarretako eskultura multzoa

Conjunto escultórico de Galarreta

ALFA / ATHA



Euskal Herriko erlijio izaerako atelada manierista onenetako bat da eta, horien artean, berak baino ez die eusten elementu guztiei. Garaipen arku klasiko baten eskema halakotzen du, Ama Birjina nagusi duela.

Se trata de una de las mejores portadas manieristas de carácter religioso del País Vasco y, de esa tipología, la única de la que se conservan todos los elementos. Reproduce un esquema de arco triunfal clásico, con la Virgen como protagonista.



Arabako Foru Aldundiaren Zaharberitze Zerbitzuak finantzatu du eskulturen zaharberitzearen zuzendaritza teknikoa. Ártycó enpresak tratamendua egin du. Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak eta Arkitektura Zerbitzuak zuzendu eta finantzatu dute ateladaren egonkortzea, Zaharberrikuntza Zerbitzuaren aholkularitzapean.

2015ean heldu ziren Zaharberrikuntza Zerbitzura, Galarretatik, Done Petri eta Done Pauloren irudiak, ikertuak eta landuak izan zitezten. Hurrengo urtean, Ama Birjinaren irudia heldu zen.

Hiruki bat eginez jarritako hiru irudiak estatu erromanisten adibide garbi dira, Miguel Angelen prototipoetan oinarrituak. Hala ere, Andra Maria eta haurra emetuta ageri dira, Rafaelen beste eredu batzuen eraginagatik.

OBJEKTUA • OBJETO:

Done Petri, Done Paulo eta Ama Birjinaren eskultu
Esculturas de San Pedro, San Pablo y la Virgen Madre

KOKAPENA • UBICACIÓN:

Eskola zaharrak-egungo kapera (Galarreta)
Antiguas escuelas-capilla actual (Galarreta)

KRONOLOGIA • CRONOLOGÍA:

XVI. mendeko bukaera
Finales siglo XVI

AZALPENA • DESCRIPCIÓN:

Kareharrizko eskultura polikromatuak, ustez Lope de Larrearenak, jatorrian Juan Beltrán de Muguertzak eginiko hareharrizko atelada errenazentistako horma-hobietan egon zirenak. Esculturas en piedra caliza y policromadas, ubicadas originalmente en las hornacinas de la portada renacentista. La portada en piedra arenisca es de Juan Beltrán de Muguertza.

LEGE BABESA • PROTECCIÓN LEGAL:

Arkitektura: Done Jakue bideko monumento multzoaren zati da
Kalifikazioa: Babes ertaina (EHAA, 2012/01/27)
Arquitectura: Forma parte del Conjunto Monumental del Camino de Santiago
Calificación: Protección Media (BOPV de 27/01/2012)



La financiación y dirección técnica de la restauración de las esculturas se ha hecho a través del Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava. El tratamiento ha sido efectuado por Ártycó. La consolidación de la portada ha sido dirigida y financiada por el Servicio de Patrimonio Histórico Arquitectónico y el Servicio de Arquitectura, con el asesoramiento del Servicio de Restauración.

En 2015 ingresan en el Servicio de Restauración, procedentes de Galarreta, las imágenes de San Pedro y San Pablo para su estudio e intervención. Al año siguiente, la imagen de la Virgen.

Las tres imágenes, dispuestas en composición triangular, son claros ejemplos de estatuaria romanista, basada en prototipos miguelangelescos, si bien la Virgen con el Niño aparecen más dulcificados por influencia de otros modelos de Rafael.



Euskarria kohesio egoera onean zegoen, nahiz eta inguru agerietan material galerak eta azalera guztian pitzadurak eta urradurak antzematen ziren. Horiez gain hautsa eta jatorri ugariko orbanak zituen: animalien eginkariak, argizaria, zementua eta graffitiak, bai eta kolonizazio biologikoa ere, zenbait gradutan kasuen arabera. Gainerako polikromiaren kontserbazio egoerak gorabehera handiak zituen, oso hauskorra zen eta hauts-itxura hartua zuen.

Lehen azterketak egin ondoren, esku hartze proiektu bat egin zen, fase hauekin:

Aurretiko ikerlanak egitea eta agiriak

- Agiri historikoak: idatzizkoak, grafikoak eta argazkiak.
- Laginak hartzea eta analisi kimikoak.
- Kontserbazio egoeraren mapen azterlana eta erregistroa eta harria lantzeko erabilitako tresnen aztarrenen kalkoa.
- Polikromien gauzatzeko teknikaren, baliokidetzaren eta birsortze birtualaren azterlana.
- Lan prozesuaren eta azken emaitzaren argazkiak.

Tratamendua

- Azaleko hautsa, kolonizazio biologikoa, animalien gorozkiak, orbanak eta metakinak kentzea, bitarteko mekanikoak, garbiketeta gelak eta laserra erabiliz.
- Okre kolorebakarreko azken kapa kentzea.
- Biozidak aplikatzea.
- Geruza polikromoen azken finkatzea.
- Lanaren irakurketa itxuraldatzen duten zonen berrintegrazioa edo ezabaketa.
- Babesa.

Azken txostena egitea eta mantentze plana

Galarretako Done Petri, Done Paulo eta Ama Birjinaren eskulturetako lanak direla eta, hiru fase historiko identifikatu dira: XVI. mendea, XIX.a eta XX.a.



Polikromien baliokidetzaz azterlanak kolore geruza gainezarriak aztertzen ditu, urteak joan urteak etorri metatu direnak. Metodo arkeologiko bati jarraikiz, ahalbidetzen dute grafiko bat egitea kronologiaren ordenarekin eta hartzen duten azalarekin. Datu horiek guztiak batera aztertuz gero, obrak garai bakoitzean izandako polikromien gaineko hipotesiak egiteko aukera ematen du.

El estado de cohesión del soporte era bueno, aunque se apreciaban numerosas pérdidas de material en las zonas más sobresalientes e incisiones y arañazos por toda la superficie, que presentaba polvo y manchas de diverso origen: deposiciones de animales, cera, cemento o grafitos, así como colonización biológica, en distinto grado según los casos. Los restos de policromía se conservaban de manera desigual, eran muy frágiles y estaban pulverulentos.

Tras los estudios previos, se elaboró un proyecto de intervención con las siguientes fases:

Realización de estudios previos y documentación

- Documentación histórica tanto escrita, como gráfica y fotográfica.
- Toma de muestras y análisis químicos.
- Estudio y registro de mapas de estado de conservación y calco de la huella de las diferentes herramientas empleadas para el labrado de la piedra.
- Estudio de técnica de ejecución, correspondencia y recreación virtual de policromías.
- Registro fotográfico del proceso de trabajo y del acabado final.

Tratamiento

- Eliminación de polvo, colonización biológica, deposiciones de animales, manchas y depósitos superficiales por medios mecánicos, geles de limpieza y aplicación de láser.
- Eliminación de la última capa monocroma ocre.
- Aplicación de biocida.
- Consolidación final de los estratos policromos.
- Reintegración o velado de las zonas que distorsionan la lectura de la obra.
- Protección.

Elaboración de informe final y plan de mantenimiento

Con motivo de la intervención sobre las esculturas de San Pablo, San Pedro y la Virgen de Galarreta, se han identificado tres fases históricas (siglo XVI, siglo XIX y siglo XX).

El estudio de la correspondencia de policromías analiza las diferentes capas de color superpuestas, acumuladas normalmente en una obra con el paso del tiempo. Siguiendo un método arqueológico, permite elaborar un gráfico con el orden cronológico y la superficie que ocupan. La relación de todos estos datos permite elaborar hipótesis sobre las distintas policromías que ha ido teniendo la obra en cada época.